

MU-GEPeko GMHZetako eta Ziklo Ondoetako ikasleen diploma banaketa

2012/07/05

Mondragon Goi Eskola Politeknikoak 122 diploma banatu zizkien uztailearen 4an Goi Mailako Prestakuntza Zikloetako ikasleei. Horrela, 2010-2011 ikasturtean ikasketak bukatu dituzten 122 ikasle horien ahalegina eta meritua aitortuko ditu Mondragon Goi Eskola Politeknikoak. Zehazki, honako ikasle hauek hartuko dituzte beren diplomak: Industria Ekipamenduen Mantenimenduko 51 ikaslek, Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioko 9 ikaslek, Mekanika Proiektuen Garapeneko 9 ikaslek, Informatika Sistemen Administrazioako 24 ikaslek, eta Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoetako 29 ikaslek. Ekitaldi horretan aurtengo ikasturtean ziklo ondokoa bukatu duten 10 ikasleei ere diplomak banatu zaizkie.

Ekitaldian txirrindularitza munduko bi pertsona famatuk parte hartu zuten, Eneko Zarandonak, ORBEAko kalitate-teknikariak, eta bestetik, Iñaki Lejarretak, ORBEA RACING TEAMEko txirrindulariak.



GMHZ eta Ziklo Ondoko Diploma Banaketa